



ERIDENEN DU ZERZAZ KONTENTA:
SAILKIDEEN OMENALDIA
HENRIKE KNÖRR IRAKASLEARI
(1947-2008)

MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA & RICARDO GÓMEZ (ARG.)

eman ta zabal ezazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

ERIDENEN DU ZERZAZ KONTENTA:
SAILKIDEEN OMENALDIA
HENRIKE KNÖRR IRAKASLEARI
(1947-2008)

Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.)



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

2015
Bilbo

CIP. Biblioteca Universitaria

Eridenen du zerzaz kontenta : sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008) / Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.) - Bilbo : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2015. – 668 p. ; 24 cm.

Textos en euskara, español e inglés.

D.L.: BI-92-2015. – ISBN: 978-84-9082-092-6

1. Knörr, Henrike (1947-2008). 2. Euskara (Lengua). 3. Literatura vasca. I. Ezeizabarrena Segurola, María José, coed. lit. II. Gómez, Ricardo, coed. lit.

809.169

891.69.09

Argitalpen hau ondoko ikerketa proiektu eta taldeen barruan sartzen da:

Esta publicación se enmarca en los siguientes proyectos y grupos de investigación:

This publication has been developed in the framework of the following research projects and groups:

- «Aproximación al estudio de la competencia léxica y gramatical de los bilingües: metodologías experimentales y no experimentales» (Espainiako MINECO, FFI2012-37884-C03-02).
- «*Monumenta Linguae Vasconum* (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (Espainiako MINECO, FFI2012-37696).
- «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT-698-13).
- «Hizkuntzaren jabekuntza, irakaskuntza eta erabilerak. Euskara, elebitasuna eta eleaniztasuna» (HIJE) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT-676-13).
- «Adquisición de lenguas, literatura y traducción en la formación plurilingüe» (UPV/EHU, UFI11/06).
- «Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara» (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14).

UPV/EHUko Euskararen arloko Errektoreordetzak lagundutako argitalpena

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

© Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg. / eds.)

© Egileak / Los autores / The authors

ISBN: 978-84-9082-092-6

Lege gordailua / Depósito legal: BI-92-2015

Aurkibidea

Aurkezpena	
MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA & RICARDO GÓMEZ	XI
Hitzaurrea	
IÑAKI GOIRIZELAIA, UPV/EHUko errektorea	XV
Henrike Knörr eta UPV/EHUko Letren Fakultatea	
IÑAKI BAZÁN, Letren Fakultateko dekanoa.	XVII
Henrike Knörr (1947-2008). Bibliografia	
GARIKOITZ KNÖRR (Universitat de València)	XXI
Diskurtso-markatzaile berri batzuk: <i>beste hitz batzuetan (esanda/esateko)</i> , <i>beste hitzetan (esanda/esateko)</i>	
XABIER ALBERDI LARIZGOITIA (UPV/EHU)	1
<i>Eguna</i> egunkariko idazleak (1937)	
XABIER ALTZIBAR ARETXABALETIA (UPV/EHU)	27
Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuez (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz)	
BORJA ARIZTIMUÑO LÓPEZ (UPV/EHU)	49
Euskararen azentuera: hizkera tradizionaletatik euskara estandarera	
GOTZON AURREKOETXEA, IÑAKI GAMINDE, LEIRE GANDARIAS & AITOR IGLESIAS (UPV/EHU)	71
<i>Work in conflict</i> : (meta)literatura y escritura en novelas que abordan el conflicto vasco	
MIKEL AYERBE SUDUPE (UPV/EHU)	97
<i>Hain zuzen (ere)</i> diskurtso-markatzailea: lokailu ala operadore?	
MIREN AZKARATE (UPV/EHU)	113

Erreferentziakidetasun-sareen etiketaze-metodologia EPEC Corpusen tratamendu konputazionalari begira KLARA CEBERIO (UPV/EHU), ITZIAR ADURIZ (Universitat de Barcelona), ARANTZA DÍAZ DE ILARRAZA (UPV/EHU) & INES M. GARCIA-AZKOAGA (UPV/EHU)	129
Zubereraren /y/: bere sorrera eta hedapenaren inguruan ANDER EGURTZEGI (UPV/EHU)	149
New media – new challenges for language policy: Rethinking the role of public media in language revitalization AGURTZANE ELORDUI (UPV/EHU)	163
EPEC-RolSem: Ingelesezko <i>PropBank-VerbNet</i> eredura etiketatutako euskarazko corpusa. Erabakiak, egokitzapenak eta bereizgarriak AINARA ESTARRONA, IZASKUN ALDEZABAL, ARANTZA DÍAZ DE ILARRAZA & MARÍA JESÚS ARANZABE URRUZOLA (UPV/EHU) .	179
<i>Kode alternantzia</i> elebidun txikien hizkuntzak bereizteko gaitasunaren adierazgarri MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA (UPV/EHU)	207
Narratze-trebetasunen garapena. Ipuin bera eta ume bera hiru adin ezberdinetan INES M. GARCIA-AZKOAGA, ITZIAR IDIAZABAL & LUIS M. LARRINGAN (UPV/EHU)	227
Birformulatzailerik zuzentzaileak testu idatzietan JULIO GARCIA GARCIA DE LOS SALMONES & MIKEL IRUSKIETA (UPV/EHU)	245
Partizipioa erlatiboa zenekoa: partizipio kategoria XIX. mendeko zenbait euskalariren lanetan RICARDO GÓMEZ LÓPEZ (UPV/EHU)	267
Sobre una estampilla ibérica de Ruscino (Castell Rosselló, Perpignan) JOAQUÍN GORROCHATAGUI (UPV/EHU)	281
Galderen eta erlatibozkoen ulermena haur euskaldunengan M. JUNCAL GUTIERREZ-MANGADO (UPV/EHU)	289
Euskarazko galdera erdibituak: analisi bitar baterantz ARITZ IRURTZUN (CNRS-IKER & HiTT)	307
Euskarazko silaba egiturak zen.ba.tzen OROITZ JAUREGI (UPV/EHU)	325

Aitzol Aramaioren <i>Terminal</i> laburmetraia. Literatura eta zinema JON KORTAZAR (UPV/EHU)	337
Hiru hasperen haboro JOSEBA A. LAKARRA (UPV/EHU)	349
Zaraitzuko oikonimia JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE (NUP)	379
Ehulku eta Jagonet kontsulta-zerbitzuak aztergai JESUS MARI MAKAZAGA EIZAGIRRE (UPV/EHU)	401
Gaztelania H ₁ eta H ₂ -ren garapena 5 eta 8 urte artean: ipuinetako aditz kohesioa aztergai IBON MANTEROLA GARATE (UPV/EHU)	419
Irudikapen fonologikoa gaztelania-euskara afasia elebidunean AMAIA MUNARRIZ (UPV/EHU)	437
<i>Gauza ziuorra</i> eta <i>gezur hutsa</i> : euskal izenondo adberbialen kolokazioak JUAN CARLOS ODRIOSOLA PEREIRA (UPV/EHU)	457
Sites of memory in the Narrative of Bernardo Atxaga MARI JOSE OLAZIREGI (UPV/EHU)	475
Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan MIREN LOURDES OÑEDERRA (UPV/EHU)	491
<i>Awkward birds</i> . Cosmopolitanism and globalisation issues in mi- norised cultural communities LOURDES OTAEGI IMAZ (UPV/EHU)	499
Oloroeko diozesako euskal liburuak eta zuberera idatzia MANUEL PADILLA MOYANO (UPV/EHU)	519
Koherentzia diskurtsiboa euskal baladen exordioetan PATXI SALABERRI MUÑOA (UPV/EHU)	537
Hizkuntza corpusak eta euskara PELLO SALABURU (UPV/EHU)	559
Landucciren hiztegien ordena eta honen eragina euskarazko hiztegian BLANCA URGELL (UPV/EHU)	577
Henrike Knörr y su relación con Turquía CARMEN URIARTE (Turkiaren ohorezko kontsula Euskal Herrian) . .	603

Zenbait ohar <i>bata bestea</i> anafora elkarkariaren inguruan ARITZ URRUTIA, BEÑAT GOITIA & XABIER ARTIAGOITIA (UPV/ EHU)	617
Arabako euskararen gaineko ikerketak KOLDO ZUAZO (UPV/EHU)	643
Tabula Gratulatoria	667

Zubereraren /y/: bere sorrera eta hedapenaren inguruan*

Ander Egurtzegi

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila, UPV/EHU
ander.egurtzegi@ehu.eus

1. Sarrera

Euskalki moderno guztiek 5 bokal “kardinalak” /i, e, a, o, u/ dituzte. Haue-tarik, bakarrik zubererak, Amikuzeko behe-nafarrerarekin batera (Camino 2009), garatu du seigarren bokal kualitate kontrastibo bat, /y/ goiko bokal biribildu aitzinatua. Bokal hau beste euskalkietako /u/-ri dagokio sistemati-koki eta segmentu horietatik erator daiteke konparazio dialektalaren bidez. Halere, /u/-tik ezberdin daiteke, testuinguru fonologiko zenbaitek aitzinera-tzea eragotzi zutelako (cf. § 2.1) eta euskalkiaren barnean /u/-ren beste jato-riak daudelako (cf. § 3).

/y/ zubereraz idatzitako dokumentu zaharrenetatik agertzen zaigu: Zal-gizerengan agertzen da (Urquijo 1908-09) eta baita Oihenart-engan (1657) ere, honek deskribatu eta <u> bezala adierazten duelarik. Nahiz eta testu zaharrenetan <u> bezala irudikatu —non /u/ <ou> digrafoaren bidez adie-razten den—, testu modernoetan <ü>-ren bidez irudikatzen da, eta hori izango da adibideetan erabiliko dugun grafema.

Mitxelena-ren (1961/77: 52) arabera, zubererazko [y]-ren ebakera fran-tsesaren [ø]-tik hurbilago dago [y]-tik baino. Hualdek ere (1993: 290-291) segmentu hau frantsesezko [y] eta [ø]-ren artekotzat du eta hori beste bi bokal altuak (/i/ eta /u/) frantsesezkoak baino irekiagoak izatearekin lotzen du, Larrasquet (1932) eta Lafon (1958) aipatzen dituelarik.

* Lan honek Eusko Jaurlaritzako ikertzaileen prestakuntza programaren (2010-385), “Historia de la Lengua Vasca y Lingüística Histórico-Comparada” (IT698-13) eta Minis-teritzako “*Monumenta Linguae Vasconum* (IV): Textos Arcaicos Vascos y Euskera An-tiguo” (FFI2012-37696) ikerketa egitasmoen eta UPV/EHU-ko UFI 11/14aren diru-la-guntza jaso du. Juliette Blevins, Joseba Lakarra, Beatriz Umbon eta liburu honen edito-reei zor dizkiet aurreko bertsioei egindako iruzkin eta zuzenketak. Geratu diren akatsak nireak dira.

Goiko bokal biribildu aitzinatua ez da guztiz ezezaguna Iparraldeko beste bi euskalkietan, biek frantsesetik hartutako zenbait hitzetan erakusten baitute, *faktūra*, *kandidatūra* eta *número* kasu (cf. Zuazo 2008: 43).

Zubereran bokal ahokari eta sudurkarien arteko oposaketa dugu. Sudurkaritasun oposizioa garai zaharragoetan euskalki gehienetan ezaguna zen (cf. Egurtzegi 2013a: 127), bokalarteko hasperen sudurkarituaren /h̃/ (< *n) galeraren ostean (cf. Egurtzegi 2013b) bokal eta diptongo sudurkariak sortu zirenean. /h̃/-ren galeraren ondorioz sortutako bokal sudurkarituak XVII. mendeko bizkaieran aurki daitezke, baita desagerturiko erronkarietan ere (cf. Egurtzegi 2013a: 126-127).

Zuberera modernoak igurzkarri glotal sudurkaritua mantentzen duenez, ez ditu beste euskalkietan egon zitezkeen bokal eta diptongo sudurkarituak testuinguru horietan garatu (cf. *ahate*). Euskalki honetan, bi bokal serieen arteko oposizioa hitz oxitonen azken silaban sortu da, non bokal zenbaitek azken silabako /n/-ren erorketaren ondorioz sudurkaritasuna garatzen duen, ezaugarri honen sorburua galdu ostean. Hauen adibide dira *salu* [s̺a'lu] (cf. fr. *salon*), *bedezi* [beðe's̺i] (cf. fr. *medecin*) eta *ardu* [ar'ðũ] (< *ardō < *ardãō < *ardaño < *ardano). Autore zenbaitek (cf. Mitxelena 1961/77, Hualde 1993, Zuazo 2008: 46) kontsonante sudurkarien inguruko bokalak sudurkaritu bezala deskribatzen dituzte —sudurkaritasun hori aktiboa ala pasiboa den zehaztu gabe—, baina ez dago bokal oposaketarik kokapen horretan: *khatiña* [k^hatĩnã], *gazna* [gaz̺nã], *ama* [ãmã] edo *ahate* [ãhãte] bezalako adibideetan sudurkari batekin kontaktuan dagoen edozein bokal fonetikoki sudurkaritua da. Zuberera modernoak ez du /õ/ fonemarik, honakoa sistematikoki /ũ/ bihurtu zelako (cf. Mitxelena 1961/77: 48; eta § 3.2 beherago).

Zubereraren bokalen bilakabideei eta hauen distribuzioari dagozkien deskribapenak berretsi eta sendotzeko, modu aleatorioan hautatutako *Orotariko Euskal Hiztegiaren* (Euskaltzaindia 1987-2005) 500 orrialde baino gehiago ikuskatu dira, autore eta garai ezberdinetako testu zuberotarretan dagozkigun hots-ereduen adibideak identifikatu eta analizatuz, aurreko bibliografia berrikustearekin batera.

2. Bokal biribildu aitzinatu altuaren garapena

Zenbait hizkuntza galo-erromantzetan bezala, zubererak /u/ gehienak /y/ bihurtu dituen hots-eredu bat garatu du. Bilakabide hau ia testuinguru gabekoa dirudi, (1)en agertzen diren adibideek erakusten duten bezala:

- (1) /u/ > /y/: *zelü*, *zü*, *egün*, *mündü*, *phünta*, *künte*, *üda*, *düda*, *negü*, *düt*, *düzü*, *güti*, *müthür*, *ükho*, *güzi*, *büztan*, *ürhe*, *ürhãts*, *lür*, *beldür*, *egür*, *hezür*, *ürrin*, *txakhür*, *gürkatü*, *ürpho*, *ürgaiztü*...

Hala ere, bilakaera hau hizkuntza erromantzeetan aurki daitezkeenetarik bereizten da aitzineratzea blokeatzen duten zenbait testuinguru izatean, haien arteko erlazio ebidenterik ikusten ez delarik. Testuinguru hauetan guztietan /u/-ren osteko segmentu koroari bat dago, baina koroari guztiek ez dute bilakabidea blokeatzen, (1) adibideetan ikus daitekeen bezala. Testuinguru galarazle hauek aspaldiko literaturatik (cf. Uhlenbeck 1903; Gavel 1920; Lafon 1937, 1958, 1962a, 1962b; Mitxelena 1961/77; Zarabozo 1972) dira ezagunak eta lan berriagoetan ere aurki daitezke (cf. Hualde 1993; Zua-zo 2008; Oñederra 2009a, 2009b; Egurtzegi 2013a: 129).

2.1. Aitzinaratzea galarazten duten testuinguruak

Aitzinaratzea hiru segmentu/talde ezberdinen aurrean galarazi zen: /s/ txistukari apikari frikariaren aurrean; /t/ dardarkari bakunaren aurrean;¹ eta /rt^h, rt, rd/ dardarkari-horzkari talde baten aurrean. Honen lekukoak (2-4) adibideetan ematen dira. Nahiz eta dardarkari bakuna zuberera modernoan galdu den eta honekin dardarkarien arteko oposaketa (cf. Egurtzegi 2013a: 141, Mitxelena 1961/77: 328-330), bilakabide horren aurreko egoera erabiliko da adibideetan, argiagoa izan daitekelakoan.

- (2) /s/ igurzkari apikariaren aurrean: *ikhusi*, *itxusi/itsusi*, *phusatü* (cf. fr. *pousser*), *bustal/busti*, *uste*, *buska(tü)* (cf. gaz. *buscar*).
- (3) /t/ dardarkari bakunaren aurrean: *hur/hura*, *hirur*, *barur*, *zur/zura*, *hura*, *zure/zuri*, *gure/guri* (baina *zü*, *zük*, *gü*, *gük*, etab.), *xuri*, *axuri*, *ixuri/isuri*, *irakur(tü)*.
- (4) /rt^h, rt, rd/ dardarkari-horzkari talde baten aurrean: *urthe/urtharrill/urthatse*, *urthuki*, *hurtatü*, *urde*, *urdin/Urdiñarbe*.

(3)ko lehendabiziko lau adibideek erakusten duten bezala, hitz amaiera-ko dardarkarien neutralizazioak ez du /u/ren aitzineratzea bazkatzen. Nahiz eta egun hauek dardarkari anitzak diren, haien aurreko /u/ak mantendu egin dira.

Hala ere, gorago aipatu bezala, badaude salbuespenak, non aitzinaratzearen eragozpena espero den, baina /y/ ager daiteke. Horietako zenbait (5-8)n bildu dira:

- (5) Salbuespenezko aitzineratzea /s/ aurretik:
 - a) *üsna*, *üs kara*, *Sü(s)diakre* (< fr. *Sous-diacre*), *Jesüs(-Krist)*, *üsaje/üsa(iñ)*, *üsatiü*.

¹ Nahiz eta adibideetan transkribatuko dugun, zubererak /t/ dardarkari bakuna galdu du (cf. Egurtzegi 2013a: 141).

b) *üstantza, küska/küxka, üspeldül/üstel, üstiatül/üstio, jüsto/injüsto.*

(5)eko adibideek /uʃ/ sekuentzia guztiak ez zirela mantendu erakusten dute, zenbait /yʃ/ bihurtu baitziren. Edonola ere, hauetakoa asko — (5a)n agertzen direnak — ez dira beti aitzinaraturik agertzen, autorearen arabera baizik.

(6) Salbuespenezko aitzineratzea /t/ aurretik: *üra, segür(ago).*

(7) *-(t)üra* (cf. fr. *-(t)ure* /tyʁ/) atzizkidun hitzak: *ardüra, ohidüra, apañdüra, eskritüra, kreatüra, solthüra, bilkhüra, figüra, hanküra, arranküra, natiüra(l)* (cf. fr. *nature* /natyʁ/).

(8) Aitzineratzea flexioan: *-rik* (partitiboa) eta *-ren* (etorkizuna): *haitatürrik, konparatürrik, kargatürrik, kasürrik, hartüren, sarthüren, irakhürtüren, ausartüren.*

Dardarkari bakunaren aurreko aitzineratzearen adibideak frikari apikariaren aurrekoak baino gutxiago dira. Ia adibiderik ez legoke, (6)ko adibide biak (7) taldean sar daitezkeela onartzen badugu. (7)ko adibide guztiek atzizki bakarra dute, erromantzetik hartutako *-üra*, hain zuzen ere. Atzizki honek nolabaiteko produktibitate maila dauka ondare hitzetan. Frantses modernoko *-(t)ure* atzizkia /-(t)yʁ/ ebakitzen dela aipatu behar da, e.g. *signature* /sjɛnatyʁ/, *verdure* /vɛʁdyʁ/, *figure* /figyʁ/, etab.

(8)k (*-tu* >) *-tü*-ren osteko *-rik* eta *-ren* inflexio atzizkien gehiketaren ondorioz sortutako *-ür*- sekuentziak oztoporik gabe aitzineratu dira. Honako eraketa berantiar baten ondorio izan daiteke edo, errazago, bilakaera hitz fonologikoaren mugen barnean gertatzearen seinale (cf. *zure, zuri, gure* eta *guri* (2) adibidean, non aitzinaratzea beti blokeatzen den).

Ez da /rt, r^h, rd/ taldeen aurreko aitzineratzerik aurkitu. (8)ko adibideetan bezala, *-ur* > *-ür* sekuentziaz amaitzen diren erroek ez dute *-tü*-rekin talderik sortzen. Honakoa aurretik adierazitako aitzineratzearen mugen tesuinguruan ulertzen dugu.

Aitzineratzea eragotzi duten tesuinguruez gain, badira zenbait hitz tesuinguru hauetan sartu gabe bilakaerari eutsi diotenak. Hauek ez dute beti aitzineratzea ekidin, batzuek bariazioa erakusten dute horren ordez:

(9) Ezustezko /u/ gordeen adibideak: *urzo, urratü, agur, huts, kurrunka,*² *zurratü, buket.*

(9)n agertzen diren lehendabiziko lau adibideek bariazioa erakusten dute, azken hirurek modu erregularrean /u/ erakusten duten bitartean. Az-

² Bigarren /u/-ak ez du zertan igo behar /i/-tik etor daitekeelako (cf. *kurrinka*). Hitz hau fonosinbolikoa izan daiteke.

ken adibidea erromantzetik harturiko mailegu berria da, mailegaketa prozesuaren ostekoa izan daitekeelarik kontradibide baten ordezt (cf. fr. *bouquet* /buke/). Aipatu behar da (9)ko bost adibidek dardarkari anitzaren aurreko aitzineratzearen eragozpena erakusten dutela, *huts*-ek afrikatu apikariaren aurrekoa erakusten duen bitartean.³

[u]k osaturiko diptongoetan aitzineratzea ez da bokalaren modu berean gertatu. Horren ordezt, /V_u/ diptongo gehienak /V_i/ bihurtu dira zubereraz eta erronkarieraz. Goranzko diptongoak, euskaraz arraroak diren arren, gorde egin dira (cf. *suerte*, *juan*).⁴ (10)en /V_i/-ren adibideak ematen dira, eta (11)n gordetako /V_u/-renak.

(10) /V_u/ > /V_i/ sabaikarituriko diptongoak: *gai*, *gaiza*, *aizo*, *laidatü*, *laidorio*, *haitatü*, *belaiñ*, *iraiñ*, *iraili*, *nai*, *naik*, *naizü*, *naie*, *lein*.

(11) /u/ gorde duten diptongoak: *laur*, *haur* ‘hau’, *zihaur*, *beraur*, *zauri*, *haur* ‘ume’, *arau*, *phausa(tü)*, *nausi*, *hauts/hausten*, *ausiki*, *jaun*, *auher*, *auhen*, *eurileubri*, *euskaraleuskaldün*, *deus*.

(11) adibideak erakusten duenez, diptongoen sabaikaritza eragotzi duten testuinguruak /u/-ren aitzineratzea eragotzi dutenen oso antzekoak dira: sabaikaritza /r/, /r/, /s/ edo /ʃ/-ren aurrean eragotzi da gehienbat. Hauei /h/-ren aurreko bi adibide (*auher*, *auhen*) gehitu behar zaizkie. *Jaun*-en kasuan, diptongoaren mantentzea horren aurreko kontsonanterdiari egotzi ohi zaio literaturan. Maisterrek eta agian Xarlemek (cf. *OEH*) ematen duten *araur* aintzat hartuko badugu, *arau*-ren /u/-ren mantentzea azken dardarkari horren izaera etimologikoaren ondorio litzateke.

Noizean behin aitzineraturiko irristariak ager daitezke (11)ko adibideetako hitz zenbaitetan. Aldaera horiek (12)n bildu dira:

(12) /y/ rekin bariazioa: *eüskal/üskara*, *jaiün*, *deüs*, *eüri*.

Honenbestez, korpusaren analisitik dardarkari bakunak eta dardarkari-horzkari taldeek aitzineratzea sistematikoki galarazten dutela ondoriozta genezake. Hauen ostean txistukari frikari apikaria egongo litzateke, eta horien atzetik, askoz indar gutxiagorekin, dardarkari anitza eta txistukari apikari afrikatua.

³ *Agur* eta *huts*, behin baino aurkitu ez ditugunez, akats tipografikoak izan daitezke. Hala ere, ikus beherago testuinguru horietan ere gertatzen den diptongoen sabaikaritza.

⁴ /uj/ diptongoek beste edozein /u/-ren izaera dute, cf. *esküin*.

2.2. Bilakabidearen oinarri fonetikoak

Behin aitzineratzearen (eta honen galarazpenaren) testuinguruak zehaztu ditugula, prozesu honen oinarri fonetikoaren inguruko bibliografiaren eta bere paralelo tipologikoen bidez bilakabide hau hobeto ulertzen saia gaitezke. Nahiz eta galo-erromantzeari dagokion literaturan testuinguru gabekotzat hartzen den, zubereraz u > y aitzineratzea testuinguru fonologiko zenbaitek galarazten du (cf. § 2.1).

“Testuingururik gabeko” atzeko bokal altuaren aitzineratzea erakusten duten hizkuntza erromantzeen artean frantsesa (Harris 1988: 210), okzitanaoa (Wheeler 1988: 247) eta kamunoa (Cresci 2013) daude. Erromantzeetatik at, antzeko prozesuak hizkuntza askotan deskribatuak izan dira: akha hizkuntza lolo-burmarrean, albanieran eta ingelesaren zenbait dialektotan aurki daiteke, Erresuma Batuko hegoaldeko ingeles estandarrean (Hawkeys & Midgley 2005, Henton 1983, McDougall & Nolan 2007, Harrington *et al.* 2008, Harrington 2012), Australiako ingelesean (Cox & Palethorpe 2001), Zelanda Berriko ingelesean (Gordon *et al.* 2004) eta hegoaldeko ingeles amerikarrean zein ingeles amerikar orokorrean (Bailey 1997, Fridland 2008). Modu berean, /u/ > /y/ aldaketa Labov-ek (1994: 116) proposatutako bilakabide bokaliko kateen parte da. Testuinguruaren ondoriozko atzeko bokalen aitzineratzea, orokorrean *umlaut* deritzona, hizkuntza germanikoetan da bereziki indartsua, (aleman zah., holandes zah., saxoiera zah., islandiera zah., ingeles zah. zein friso zah. kasu), baina beste hizkuntza zenbaitetan ere aurki daiteke, rotumanean (Churchward 1940), esaterako. Aldaketa hauetan, /u/-ren aitzineratzea ondoko silabako /i/ batek eragiten du.

Harrington-ek (2012) testuinguru gabeko /u/-ren aitzineratzea koartikulazio testuinguruetan sortzen dela argudiatzen du. Koartikulazioa hots aldaketa ezberdin zenbaiten eragile da (Ohala 1981, 1993), harmonia bokalikoa (Beddor *et al.* 2002) edo bokalen sudurkaritzea (Hajak 1993) kasu.

Harrington-en (2012: 104) arabera, hautemate-produkzio erlazioak patroi koartikulatiboetan lerrokatu ohi dira (Fowler 2005) eta hots aldaketa prozesu bat hasi ostean bakarrik galtzen da lerrokatze hori. Gauzak horrela, benetako hots aldaketa testuinguruaren menpekoea eta testuingurutik askea diren aldaera fonetikoak bata besteari hurbiltzen zaizkienean gertatuko da, koartikulazioaren hautemate konpentsazioa gutxitu egiten dela, hautemate-produkzio lerrokatze berri bat sortuz (Harrington 2012: 104).

Teoria honen arabera, bai pertzepzioa eta baita ekoizketa izan daitezke hots aldaketaren eragile: entzuleak testuinguruaren ondoriozko koartikulazioa konpentsatzeari uzten dio (cf. Ohala 1993) eta aitzineratze testuingu-

ruaren emaitza beste testuinguruetan ere fonologizatzen da (Harrington 2012: 116), aitzineratzearen menpe ez dauden testuinguruetan kokaturiko aldaerak aitzineratuei hurbildu ostean. Adierazpen honen alde doa Harrington-ek deskribaturiko ingeles hiztun gazteen /u/ak fonetikoki hiztun zaharra-
goek testuinguru aitzineratueta ebakitako /u/en antzekoak izatea.

Atzeko bokal bat aitzineratzen duten koartikulazio testuinguru ohikoenak kontsonante albeolarrenak dira (Flemming 2001, 2003; Öhman 1966). Harrington *et alii*k (2011) /u/-k T₁uT₁ testuinguruan aitzineratzeko duen joera neurtu zuten alemanieran eta /tut/-en /u/-ren hasiera zein bukaera eta /kuk/-en /u/-ren hasiera /y/-ren espazioan nabarmen sartzen zirela ikusi zuten (Harrington 2012: 106). Honekin batera Harrington-ek (2012: 115-116) atzeko bokal altuak aitzineratzeko joera aurreko bokal altuak atzeratzekoa baino handiagoa dela enpirikoki frogatu zuen.⁵

Euskaraz, /tu/ testuinguru bereziki orokorra da aditzean *-tu* morfemak duen presentzia handiaren ondorioz. Hori dela eta, Harrington-en (2012) hipotesia aintzat hartuko badugu, aitzineratzearen lehendabiziko testuinguru bertan bila daiteke, ondoren beste testuinguruetara hedatuko litzatekeela.

Gorago aipatutako paraleloen artean, amerikako ingeleseko testuinguru gabeko /u/-ren aitzineratzeak interes berezia du. Honakoa AEBetako hegoaldeko ezaugarri bat izan ohi zen, baina Ipar Amerika gehienera zabaltzen da orain (Labov 2008: 27). Kasu amerikarrean, bokalaren osteko [ɥ] “ilunak” bilakabidea galarazten du, aurretik aipaturiko segmentuek zubereran blokeatzen duten modu berean. Nahiz eta beste hizkera guztietan gertatu, murrizketa hau ez da AEBetako hegoaldeko hizkeretan gertatzen (cf. Labov *et al.* 2006: 152).

Distribuzio honentzako bi hipotesi posible daude: hots-eredua iparralde-rantz hedatu zenean [ɥ]-ren aurreko galarazpena aktibaturik zegoela baina honezkero hegoaldean galdu dela, edo bi hots-ereduak, nahiz eta kontaktua-
ren ondorio izan, bereiz garatu zirela. Koops-ek (2010: 113) bi aukerak baloratzen ditu eta bigarrenaren alde egiten du. Murriztapen hau eraginkorra da oraindik hegoaldekan kanpoko hizkeretan, hauetan hegoaldekoek baino aitzineratze maila altuagoa delarik (cf. Labov *et al.* 2006: 153), nahiz eta bertan hots aldaketa osaturik izan jada (Baronowski 2008).

Ingelesaren u > ʊ bilakaeraren [ɥ]-ren aurreko galarazpena bokal eta kontsonanteak partekaturiko keinu maila altuari egotz dakioke. /ul/ sekuen-

⁵ Nahiz eta bokal laxoen zentralizazioa ezaguna den: /ɪ/ Zelanda Berriko ingelesean (Maclagan & Hay 2007, Moon & Lindblom 1994).

tzia tautosilabikoen koartikulazio maila muturrekoa da, eta honakoa albokariaren “atzeko” espezifikazioarekin batera eragozle gertatzen da.

Zubereraren aitzineratzea eragozten duten kontsonanteen kasua ez da guztiz berdina. Hala ere, Recasens & Pallarès-ek (2001) dagokigun kasurako proposak izan daitezkeen arrazoiak iradokitzen dituzte leku eta moduaren konbinazioan oinarrituta. Autore hauek (2001: 274) adierazten duten moduan, mingainaren koartikulazio datuek ebakera hertsatua duten kontsonanteek inguruko bokaletan koartikulazio efektu handiak dituzte eta honek bokalen efektuak galaraz ditzake (Fowler & Saltzman 1993). Autoreon arabera, mihi puntaren aktibitatea eskatzen duten zenbait kontsonantek mihi gorputzaren atzeko kokapena eskatzen dute honekin batera, eta kokapen honek inguruko bokalen aitzineratze prozesuak galaraz ditzake:

It thus appears that consonants involving demanding manner requirements (and little dorsopalatal contact) block consonantal and vocalic effects at the palatal zone, i.e., apical vibration for r, friction for s and, less so, laterality and the formation of a secondary lingual constriction for dark l. (Recasens & Pallarès 2001: 288)

Beraz, mihi gorputzaren “bigarren mailako” kokapenak paper garrantzitsua izan dezake zubereraren aitzineratzearen blokeatzean. Gogoratu, izan ere, bilakabidea eragozten duten segmentu eta taldeak mihi puntarekin ebakitzen direnak direla: /r/ eta /s/ apikariak baina ez /s/ bizkarkaria. Modu berean, eragozleen taldean sartzen diren dardarkari-herskari talde bakarrak /rt^h, rt, rd/ bi segmentuetan mihi puntaren mugimendua eskatzen dutenak dira. Gainontzeko dardarkari-herskari taldeek ez dute bilakabidea eragozten, haien bigarren atalak ez direlako segmentu koroariak. Dardarkari anitzaren galarazpena askoz esporadikoagoa (§ 2.1eko (11) adibidean) den arren, ezaguna da zubereraz.

Labur esanda, u > y bilakabidearen galaraztea koartikulazio efektuen ondorioa da: blokeatzea mihi gorputzaren atzeko kokapenak sortutako koartikulazio efektuen ondorioz gertatzen da; kokapen hau /r, s, rt^h, rt, rd/ segmentu eta talde koroariak ebakitzeko behar diren mihi puntaren mugimendu finak burutzeko beharrezkoa da.

3. Loturiko gaiak

Atal honetan etorkizunean zabaldu nahi diren bi gai aurkeztuko dira: inguruko erromantzeetan gertatutako /u/-ren aitzineratze hots-eredu paraleloak eta lan honetan jorratutako aitzineratzearekin batera zubereraren bokalen distribuzioa definitu duen ekialdeko euskalkietako /o/-ren igoera.

3.1. Inguruko erromantzei begirada bat

Zubereraren inguruko erromantzeetan /u/-ren aitzineratzea sistematikotzat deskribatu izan da, bai okzitanoaren (Wheeler 1988: 247) eta baita frantsesaren (Bourciez 1967: 94) kasuan ere: gask. *un* /yn/ ‘bat (mask.)’, fr. *une* /yn/ ‘bat (fem.)’; fr., okz. *tu* /ty/ ‘zu’; okz. *segur* /segy/, fr. *sûr* /syʁ/ (cf. fr. zah. *seur* /søyr/) ‘ziur’, etab. Bi hizkuntzon aurreko garai komun batean gertatutako hots-aldaketa dela pentsa liteke, V. mendearen amaieratik IX. mendearen erdira arte kokatu ohi den galo-erromantzean kasu, baina Hall-ek (1976), esaterako, ez du hots aldaketa hau irudikatzen bere frantses zahar goiztiarraren transkripzioetan. Izan ere, /u/ > /y/ aitzineratzea iparraldeko eta hegoaldeko galo-erromantzea (i.e. frantsesa eta okzitaniera) bereizi zituen bigarren sabaikaritzearen ostean gertatu zen (cf. Buckley 2009: 32);⁶ lat. *cura* > fr. zah. *cure* /kyr/ ‘sendabide’ (eta ez */fjyr/) edota lat. *cūpa* > fr. *cuve* /kyv/ ‘upel’ (eta ez */fjyv/) bezalako adibideek ematen digutela kronologia erlatibo honen berri (Bourciez 1967: 95, Buckley 2009: 39).

Bigarren sabaikaritzea (edo sabaikaritze galo-erromantzea) V. mendearen amaieran edo VI.aren hasieran hasi berri zen (Meyer-Lübke 1890: 354hh.), baina aurretik aipatu dugun /k/-ren sabaikaritzea, esaterako, askoz beranduago kokatu ohi da VIII. mende inguruan (Fouché 1958: 203hh., Bourciez 1967: 94-95, Matte 1982: 102, Buckley 2009: 38-39).

Honenbestez, /u/-ren aitzineratzea frantses zaharrez idatzitako lehenda-biziko testuen garaian koka daiteke (Bourciez 1967: 94-95), IX. mende inguruan.

/u/-ren aitzineratzea sistematikoa da frantsesez, eta *push-chain* (cf. Labov 1994: 116) prozesu baten ondorioztat hartu izan da literaturan, erdiko /o/ bokala goiko /u/-ra igo ostean gertatutako atzeko bokal altuen pilaketa baten ondorioztat hain zuzen ere (Haudricourt & Juilland 1949: 109; 1970: 114), azalpen honek (kronologia berantiarrekin batera) /y/ galo-erromantzeko bigarren palatalizazioan eragileetako bat den /æ/ (/á, a:/ > /a:/ > /æ:/ > /ɛ/) aitzineratutik bereizten duela.

Okzitanieraz ere, bai aitzineratzea eta baita euskaraz testuinguru fonetikoki sudurkarituetara mugatzen den /o/ erdiko bokalaren igoera ere (cf. § 3.2; Egurtzegi prestatzen) sistematikoak dira (Wheeler 1988: 247).

⁶ Iparraldeko okzitanierak, transizio eremutat hartu ohi dena (Lafont 1971: 107), sabaikaritzea erakusten du: *chevral/chavra* ‘ahuntza’, *cheira* ‘maitea’, *chen/chin* ‘txakur’, *chas/chies* ‘(-ren) etxea’ (Buckley 2009: 57). Hala ere, Buckley-k bilakabide hau frantsesetik mailegatua dela ondorioztatzen du (2009: 59).

3.2. [õ] (fonetikoki) sudurkarituaren igoera

Aitzineratzea eragotzi duten testuinguruetan gordetako /u/ historikoez gain, badira /u/-ren beste jatorriak zubereraz: /o/ orokorraren zenbait adibide /u/ bihurtu ziren. Bokal igoera hau ekialdeko gainontzeko euskalkietan ezaguna da, bertan oso esporadikoa izan arren. Nahiz eta zuberera eta erronkariaren igoera prozesu hau orokorra den, ez da sistematikoa. Egurtzegi (prestatzen)-en proposaturiko analisi berriaren arabera, /o/-ren igoera esporadikoak fonetikoki sudurkaritua den edozein /o/ erasan dezake. Hau da, o > u igoerak kontsonante sudurkari baten inguruan dagoen /o/-ak eragiten ditu, [õ] > [ũ] aldaketa simple bat proposatzeko aukera ematen digularik.

[õ]-ren igoerak bi azpi-prozesu ezberdinetan bereizten ditugu (Egurtzegi prestatzen): [õ] > [ũ] eta /'õ#/ > /'ũ#/. Lehendabizikoa hots aldaketa esporadikoa da eta ekialdeko euskalki ezberdinetan aurki daiteke, bigarrena zubereraz bakarrik gertatzen den bilakabide sistematikoa den bitartean.

Bokal sudurkarituen igoera F1en eremuan gehitzen diren bi formante sudurkari gehiketak sorturiko anbiguotasunak ekar ditzakeen altuera aldaketen ondorio da, entzuleak bariazio fonetiko sudurkari hau ahoari balegokio bezala berranalizatu ostean (Egurtzegi prestatzen; cf. Beddor *et al.* 1986).

Bi prozesu hauek loturik daudela esan daiteke, zuberera eta erronkariaren bokalen egungo distribuzioa baldintzatu baitute. [õ]-ren igoera bi euskalkietan gertatu zen eta, /u/-ren aitzineratzearen isoglosa horrena baino mugatuagoa den arren, Erronkarira ere heldu zen (10)en landutako bokalerdien sabaikaritzea aitzineratze prozesuarekin lot dezakegu, biak testuinguru bertsuetan galaraziak izan baitziren.

Bilakabide honen izaera, paralelo tipologikoak eta eragile fonetikoak hurrengo lanetan (Egurtzegi prestatzen) zabalduko dira.

4. Ondorioak

Lan honetan atzeko bokal altuaren aitzineratzea landu da. Korpusaren analitiko dardarkari bakunak eta dardarkari-horzkari taldeek aitzineratzea sistematikoki galarazten dutela ondorioztatu dugu, txistukari frikari apikariak askotan eragotzen duela eta, oso gutxitan, dardarkari anitzak eta, agian, txistukari afrikatu apikariak ere.

Lan honetan u > y bilakabidearen galarazpena koartikulazio efektuen ondorioa dela proposatu dugu: blokeatzea /r, ʂ, r^h, rt, rd/ segmentu eta taldeak ebakitzeko behar diren mihi puntaren mugimendu finak burutzerakoan beharrezkoa den mihi gorputzaren atzeko kokapenaren ondoriozko koartikulazio efektuek eragiten dutela, hain zuzen ere. Modu berean, prozesuaren

abiapuntua *-tu* atzizki orokorrean aurki daitekeen /tu/ bezalako testuinguru fonetikoki aitzineratueta bila daitekeela proposatu da, hortik beste testuinguruetara zabal zitekeelarik.

Halaber, inguruko erromantzeetan aitzineratzearen paraleloak aztertu dira, horietan sistematikoak direla ikusiz eta frantsesean gertatutako hots aldaketa kronologikoki IX. mendean koka daitekeela zehaztuz. Nahiz eta zubereraren bilakabidea denboran kokatu ahal izateko etorkizunean prozesu hau gaskoieraz noiz gertatu den zehaztu beharko den, lehendabiziko hurbilketa bezala zubereraren /u/-ren aitzineratzea IX. mendea baino beranduago gertatu zela proposa daiteke.

Azkenik, modu berean zubereraren bokalen egungo distribuzioa baldintzatu duen /o/ erdiko atzeko bokalaren igoera aipatu dugu. Bilakabide hau testuinguru fonetikoki sudurkaritueta gertatu zela proposatu da, [õ] > [ũ] bezala deskriba daitekeelarik. Igoera sudurkaritasunak bokalen altueran sortzen duen anbiguotasunaren ondorioz gertatzen dela iradoki dugu.

Honenbestez, aurreko lanetan guztiz azaldu gabe geratu zen bilakabide fonologiko bat ikerketa fonetikoaren bidez hobeto uler daitekeela erakutsi nahi izan dugu.

Bibliografia

- BAILEY, GUY, 1997, "When did Southern American English begin?". In E. SCHNEIDER (arg.), *Englishes Around the World 1: Studies in Honour of Manfred Görlach*. Amsterdam: John Benjamins, 255-275.
- BARANOWSKI, MACIEJ, 2008, "The fronting of the back upgliding vowels in Charleston, South Carolina". *Language Variation and Change* 20, 527-551.
- BEDDOR, PATRICE S.; HARNSBERGER, JAMES D. & LINDEMANN, STEPHANIE, 2002, "Language-Specific Patterns of Vowel-to-Vowel Coarticulation: Acoustic Structures and their Perceptual Correlates". *Journal of Phonetics* 30, 591-627.
- ; KRAKOW, RENA ARENS & GOLDSTEIN, LOUIS M., 1986, "Perceptual constraints and phonological change". *Phonology* 3, 197-217.
- BOURCIEZ, ÉDOUARD, 1967, *Phonétique française: Étude historique*. Paris: Klincksieck.
- BUCKLEY, EUGENE, 2009, "Phonetics and phonology in gallo-romance palatalisation". *Transactions of the Philological Society* 107, 31-65.
- CAMINO, IÑAKI, 2009, "Mugako hitzun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan". *FLV* 111, 153-218.
- CHURCHWARD, C. MAXWELL, 1940, *Rotuman Grammar and Dictionary*. Sydney: Methodist Church of Australasia.
- COX, FELICITY & PALETHORPE, SALLYANNE, 2001, "The Changing Face of Australian English Vowels". In D. C. BLAIR & P. COLLINS (arg.), *Varieties of English Around the World. English in Australia*. Amsterdam: John Benjamins, 17-44.

- CRESCI, MICHELA, 2013, "Camuno vowel harmony: Understanding a unique pattern of height agreement". *Penn Linguistics Colloquium* 37 biltzarrean aurkeztutako posterra.
- EGURTZEGI, ANDER, 2013a, "Phonetics and Phonology". In M. MARTÍNEZ-ARETA (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction* [= *Mikroglottika* 5]. Frankfurt am Main: Peter Lang, 119-172.
- , 2013b, "Diferentes tipos de aspiración en vasco (con análisis espectrales del dialecto suletino actual)". In E. BLASCO, P. FRANCALACCI, A. NOCENTINI & G. TANDA (arg.), *Iberia e Sardegna. Legami linguistici, archeologici e genetici-dal Mesolitico all'Età del Bronzo*. Firenze: Le Monnier, 151-169.
- , prestatzen, "Zubereraren atzeko bokalen garapena: /y/ eta /u/-ren sorrera eta distribuzioa". Eskuizkribua.
- EUSKALTZAINDIA, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia* (16 liburuki). Bilbo: Euskaltzaindia. 3. argit. elektr., 2013: <<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>> [Kon-
sulta: 2013-08-04].
- FLEMMING, EDWARD, 2001, "Scalar and Categorical Phenomena in a Unified Model of Phonetics and Phonology". *Phonology* 18, 7-44.
- , 2003, "The Relationship between Coronal Place and Vowel Backness". *Phonology* 20, 335-373.
- FOUCHÉ, PIERRE, 1958, *Phonétique historique du français. Vol. II: Les voyelles*. Paris: Klincksieck.
- FOWLER, CAROL A., 2005, "Parsing Coarticulated Speech in Perception: Effects of Coarticulation Resistance". *Journal of Phonetics* 33, 199-213.
- & SALTZMAN, ELLIOT, 1993, "Coordination and coarticulation in speech production". *Language and Speech* 36, 171-195.
- FRIDLAND, VALERIE, 2008, "Patterns of /uw/, /ʊ/, and /ow/ Fronting in Reno, Nevada". *American Speech* 83, 432-454.
- GAVEL, HENRI, 1920, *Eléments de phonétique basque*. Paris: Édouard Champion.
- GORDON, ELIZABETH; CAMPBELL, LYLE; HAY, JENNIFER; MACLAGAN, MARGARET; SUDBURY, ANDREA & TRUDGILL, PETER, 2004, *New Zealand English: Its Origins and Evolution*. Cambridge: Cambridge University Press.
- HAJEK, JOHN, 1993, "Old French Nasalization and the Universals of Sound Change". *Journal of French Language Studies* 3, 145-164.
- HALL, ROBERT A., 1976, *Proto-Romance Phonology*. New York: Elsevier.
- HARRINGTON, JONATHAN, 2012, "The Coarticulatory Basis of Diachronic High Back Vowel Fronting". In M.-J. SOLÉ & D. RECASENS (arg.), *The Initiation of Sound Change: Perception, Production and Social Factors*. Amsterdam: John Benjamins, 103-122.
- , F. KLEBER & U. REUBOLD, 2008, "Compensation for Coarticulation, /u/-fronting, and Sound Change in Standard Southern British: An Acoustic and Perceptual Study". *Journal of the Acoustical Society of America* 123, 2825-2835.

- , P. HOOLE, F. KLEBER & U. REUBOLD, 2011, “The physiological, Acoustic, and Perceptual Basis of High Back Vowel Fronting: Evidence from German Tense and Lax Vowels”. *Journal of Phonetics* 39, 121-131.
- HARRIS, MARTIN, 1988, “French”. In M. Harris & N. Vincent (arg.), *The Romance Languages*. Londres: Routledge, 209-245.
- HAUDRICOURT, ANDRÉ-GEORGES & JUILLAND, ALPHONSE, 1949, *Essai pour une histoire structurale du phonétisme français*. Paris: Klincksieck.
- & ———, 1970, *Essai pour une histoire structurale du phonétisme français*, 2. edizioa. The Hague: Mouton.
- HAWKEYS, SARAH & MIDGLEY, JONATHAN, 2005, “Formant Frequencies of RP Monophthongs in Four Age Groups of Speakers”. *Journal of the International Phonetic Association* 35:2, 183-199.
- HENTON, CAROLINE, 1983, “Changes in the Vowels of Received Pronunciation”. *Journal of Phonetics* 11, 353-371.
- HUALDE, JOSÉ IGNACIO, 1993, “Topics in Souletin phonology”. In J. I. HUALDE & J. ORTIZ DE URBINA (arg.), *Generative Studies in Basque linguistics*. Amsterdam: John Benjamins, 289-327.
- KOOPS, CHRISTIAN, 2010, “/u/-Fronting is not Monolithic: Two Types of Fronted /u/ in Houston Anglos”. *University of Pennsylvania Working Papers in Linguistics* 16:2, 113-122.
- LABOV, WILLIAM, 1994, *Principles of Linguistic Change. Vol. 1: Internal Factors*. Oxford: Blackwell.
- , 2008, “Triggering events”. In S. FITZMAURICE & D. MINKOVA (arg.), *Empirical and Analytical Advances in the Study of English Language Change*. Berlin & New York: Mouton de Gruyter, 11-54.
- ; ASH, S. & BOBERG, C., 2006, *The Atlas of North American English: Phonetics, Phonology and Sound Change*. New York: Mouton de Gruyter.
- LAFON, RENÉ, 1937, “Tendance à la palatalisation de la sonante u dans les parlers basques du Nord-Est”. *Revue de Linguistique Romane* 13, 73-82 [In *Vasconiana*, 85-93].
- , 1958, “Contribution a l’étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule)”. In D. CATALÁN (arg.), *Miscelánea homenaje a A. Martinet* (2. lib.). La Laguna: Universidad de La Laguna, 77-106 [In *Vasconiana*, 113-133].
- , 1962a, “Contact de langues et apparition d’une nouvelle voyelle: u et ü en basque”. *Actes du X^e Congrès International de Linguistique et Philologie Romanes III. Strasbourg*, 901-909 [In *Vasconiana*, 135-143].
- , 1962b, “Sur la voyelle ü en basque”. *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 57, 83-102 [In *Vasconiana*, 95-111].
- , 1999, *Vasconiana. Iker-11*. Bilbo: Euskaltzaindia [J. Haritschelhar & P. Charritton (arg.)].
- LAFONT, ROBERT, 1971, “Deux types ethniques”. In R. LAFONT (arg.), *Le sud et le nord, dialectique de la France*. Toulouse: Privat, 101-136.

- LARRASQUET, JEAN, 1932, "Phonétique du Basque de Larrajá (quartier de Barcus)". *RIEV* 23, 153-191.
- MACLAGAN, MARGARET & HAY, JENNIFER, 2007, "Getting fed up with our Feet: Contrast maintenance and the New Zealand English Vowel Shift". *Language Variation and Change* 19, 1-25.
- MATTE, EDOUARD JOSEPH, 1982, *Histoire des modes phonétiques du français*. Geneva: Librairie Droz.
- MCDUGALL, KIRSTY & NOLAN, FRANCIS, 2007, "Discrimination of Speakers using the Formant Dynamics of /u:/ in British English". In J. TROUVAIN & W. J. BARRY (arg.), *Proceedings of the 16th International Congress of Phonetic Sciences*. Saarbrücken: Universität des Saarlandes, 1825-1828.
- MEYER-LÜBKE, WILHELM, 1890, *Grammaire des langues romanes*. Paris: E. Welter.
- MITXELENA, KOLDO, 1961/77, *Fonética histórica vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- MOON, SEUNG-JAE & LINDBLOM, BJÖRN, 1994, "Interaction between Duration, Context and Speaking Style in English stressed Vowels". *Journal of the Acoustical Society of America* 96, 40-55.
- OHALA, JOHN J., 1981, "The listener as a source of sound change". In C. S. MASEK, R. A. HENDRICK & M. F. MILLER (arg.), *Papers from the Parasession on Language and Behavior*. Chicago: Chicago Linguistic Society, 178-203.
- , 1993, "The phonetics of sound change". In C. JONES (arg.), *Historical Linguistics: Problems and Perspectives*. Londres: Longman, 237-278.
- ÖHMAN, SVEN, 1966, "Coarticulation in VCV utterances: Spectrographic measurements". *Journal of the Acoustical Society of America* 39, 151-168.
- OIHENART, ARNAUT D', 1657, *Les Proverbes Basques recueillis par le Sr. d'Ohenart, plus les poésies basques du mesme auteur*. Paris.
- OÑEDERRA, MIREN LOURDES, 2009a, "Diacronía y motivación fonética". In F. SÁNCHEZ MIRET (arg.), *Romanística sin complejos. Homenaje a Carmen Pensado*. Berna: Peter Lang, 47-67.
- , 2009b, "Ohar batzuk bokal batez: Zubereraren [y]". *ASJU* 43:1, 663-678.
- RECASENS, DANIEL & PALLARÈS, MARIA DOLORS, 2001, "Coarticulation, assimilation and blending in Catalan consonant clusters". *Journal of Phonetics* 29, 273-301.
- UHLENBECK, CHRISTIAN CORNELIUS, 1903, *Beiträge zu einer vergleichenden Lautlehre der baskischen Dialekte*. Amsterdam: J. Müller. [Frantsesera itzulia: 1909/1910, "Contribution à une phonétique comparative des dialectes basques". *RIEV* 3, 465-503; 4, 65-120].
- URQUIJO, JULIO DE, 1908-09, "Los refranes vascos de Sauguis traducidos y anotados". *RIEV* 2, 677-724; 3, 144-157.
- WHEELER, MAX, 1988, "Occitan". In M. HARRIS & N. VINCENT (arg.), *The Romance Languages*. Londres: Routledge, 246-278.
- ZARABOZO, CARLOS, 1972, "Two borrowed sound changes in Basque". *ASJU* 6, 174-182.
- ZUAZO, KOLDO, 2008, *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.